




Anima zaitez, egin ezazu bat Eskulana

 Parte hartu, kontsumitu
gutxiago, berrerabili gehiago

1. Hari bakoitzetik 160cm moztuko ditugu. Zenbat eta hari gehiago erabili, orduan eta zabalagoa izango da eskumuturrekoa.
2. Hariak lotu, erditik tolestu eta korapiloa egingo dugu. Hariak erdira zatituko ditugu.
3. Mutur batekin hasi eta hurrengo haria bi aldiz inguratuko dugu. Hari guztiekin amaitzen dugunean hurrengo kolorearekin gauza bera egingo dugu, nahi dugun luzera lortu arte.
4. Bukatzeko korapiloa egin.



1. Harietatik 60cm moztuko ditugu.
2. Hariak elkartu, erditik tolestu eta korapiloa egingo dugu. Hariak erdira zatituko ditugu.
3. Ezkerreko hari bat trukatu dugu eskuineko hari batekin.
4. Hariak kolore berdinarekin gurutzatzen jarraituko dugu, nahi dugun luzera lortu arte.
5. Amaitzeko, korapiloa egin.



Harizko eskumuturrak

Bakarrik beharko dituzu material hauek:

Kolore eberdinetako hariak.
Artaziak.
Zinta adesiboa euskarri gisa.

Zergatik harizko pulserak egin?

- ✓ Gure kontsumoa murrizten dugulako.
- ✓ Erlaxatzeko lagungarria delako.
- ✓ Sormena eta trebetasuna sustatzen dituelako.